

**EUSKAL HERRIKO  
IRAKASKUNTZA BIDEGURUTZEAN**

**Aurkezpena:**

Zer nolako zentzazioa, bidetik ibilaldi luzea egin ondoren, bat-batean, jomugarantz ziurtasunez ibili eta gero, zenbait bideren aurrean noraezean aurkitzean!

Une berean, bat-batera etorri ohi zaizkigu gogora eginiko ibilaldia, ikusitako bazterrak eta alde zurretik izandako informazio guztiak. Laster ateratzen ditugu sakeletik argibide bila, papere-rako zirriborroak eta mapak ere.

Irakaskuntzaren kasuan ere antzerakoa gertatzen ari zaigu: ikastolak eta Eskola publikoak (neurri batetan pribatuak ere bai) bateratu nahi diren une honetan erizpide edo eta jarrera kontrajarrien aurrean aurkitzen gara.

Sare bakoitzaren lehena ez denez helburu eta bide berdinetik egin, bidegurutze honetan behar bezala kokatzeko, bakoitzak lehenago eginikoari begirada bat egiteak laguntza eskain diezaguke: hasierak, iharduerak, jomugak...

*D) Ikastolak:*

- Euskara hutsean. Gestio demokratikoa, gehienetan. Guraso eta herri erakundeen nolabaiteko partaidetza. Planteamendu orokorrean barne sartutako ekintza estraeskolarrak...

### *II) Eskola Publikoak:*

- Frankoren garaiko eskolen ondorioak. Irakaslego erdalduna edo eta anti-euskalduna. Euskara berreskuratzeko proiektutik kanpoko iharduera. Gurasoen partaidetza eskasa eta puntuala. Euskara besterik ezean onartua, kasurik gehienetan.

### *III) Ikastetxe Pribatuak:*

- Heziketa metodo eta ikastetxeen gestio berezietatik aparte, euskararen tratamendu eskasa, gehienetan. Salbuespen urri batzu badira ere, ez dute euskara zor zaizkion baldintzetan onartu.

## **IHARDUPIDE EZBERDINEN AZTERKETA LABURRA**

Euskal Herrian ditugun Irakaskuntza mota horien aurkezpen fotografikoa egin ondoren jo dezagun banan-banan aztertzerara.

### *I. IKASTOLAK:*

Ikastolen bilakaera historikoa aztertzerakoan, batez ere barneko lokarri izan duten ibilbidearen zertzelada nagusiak jasoko ditut.

#### *a) Euskara butsezko irakaskuntza:*

Hasiera-hasieratik helburutzat euskara berreskuratzeko prozesuari hasiera ematea izan dutela markatu behar da. Horretarako, jakina, irakaskuntza sistemak duen garrantzian oinarriturik, proiektu berri bat, hots, murgiltze-metodoa irakasbide bezala harturik aritu izan da.

Proiektu honen hazia Agirre Lehendakariaren garaikoa bada ere, geroago eman zitzaion gorputza, babes legalik gabe eta zapalkuntza giroan.

Proiektu horretan protagonismorik handiena gurasoena zen; ikastolatik irten eta Institutura lehen IRTENALDIA pasatzerakoan gerta zitekeena gaunditzeko indarra izan bait zuten, EUSKARAREN ALDEKO APOSTU GARBIA agertuz.

*b) Gestio demokratikoa:*

Euskara seriozki hartzen zuten gehiengoaren eskuhartze aktiboa gestio demokratikotzat hartzen badugu, hasierako urteetan behintzat demokratikoki eraiki eta jokatu zutela aitortu behar.

Talde eragileen inguruan, guraso, irakasle, herrietako zenbait talde desberdin, kultur mundukoak bereziki biltzen bait ziren: diru iturriak bilatzeko zein beste era askotako ekintzak bideratzeko.

Ikastolaren lehena aztertzen ari gara eta benetan azpimarratzekoa da, une bakoitzean beharrezkotzat jotzen zirenak eskuratzeko orduan, unean uneko mekanismoz edo estrategiaz baliatzeko gaitasuna izan zutela, sormen berezia eskatzen zuten zenbait bide ta modu erabiliz.

Materialari dagokionez, prestatu, egokitu, trukatu... izan du. Irakaslegoaren prestakuntzarako ere, modu bitxia asmatu zen: egoitza edo erresidentzia bereziak, magisteritzako ikasketetatik aparte egoitzean bertan, euskaraz hobeto jazteko eta euskal kulturaz jabetzeko aparteko klaseak eratuz, herriko zenbaitek lankidetzara eskaintzen zuelarik: abeslari, bertsolari, idazle, artelari, historiagile zein beste askoren eskutik Andereño berriak jakintza zabala jasoteko aukera izan zutela.

Metodo eta materialak hobetzeko, Katalanekin zein beste herrietakoekin harreman desberdinak, ikastaroak, esperientzien trukaketa, euskararekin zerikusia zutenak edo eta lan egiteko moduarekikoak eta beste zenbait iharduketa burutuz.

*2.- Ikastolen oraina:*

Ingurugiroa eta baldintzak aldatu direnez, aipaturiko zenbait ekintza, barmetegiak bereziki, Udalen eta Diputazioen erantzukizun bezala ikusten dira.

Materialaren pisurik handiena argitaletxeek daramate, nahiz eta Federakundeak materialak ataratzen jarraitu.

Orientabideak ere Hezkuntza Sailekoek dituzte, batzutan euren planteamenduak mugatuz zenbait kasutan argibide eta tresna egoki bilakatzen batzaizkie ere.

Alderdi ekonomikoan ere aldaketak izan dira, nahiz eta oraindik gatazkak dituzten. Hezkuntza Sailak hartu bait du ardura horren arlo bat, behintzat.

Erakunde Publikoetatik laguntza hartzen hasi arte, herri mugimenduarekin izandako loturatik konpontzen zen arlo hori. Kasu batzu konpontzeko bide bezala (Nafarroakoa, Iparraldekoa) oraindik orain honakook egiten dira ikastolek antolatuz: Ibilaldia, Araba Euskaraz, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Kilometroak, fútbol partiduak...

### 3.- *Ikastolen geroa:*

Aurtengo urtarrilaren 11 eta 12an Donostian, EUSKAL ESKOLAREN EREMUA eta ESTRATEGIRAKO URRATSAK aztertzeko ikastolek eginiko Bilera Nagusian, besterik beste honakook azpimarratu ziren:

- Helburuak: inoiz baino zehatzago jarriak izan ziren ondoko bi zutabeotan oinarrituz:

*a) Euskal Eskola Euskalduna:* «Euskaldun izatea izango da bere nortasun ikurra». Beraz, argi geratu da bidearen norakoa. Ikastetxeen bateraketak ere bide horretan gertatzekoa izan beharko du.

*b) Euskal Eskola Nazionala:* «Nafarroako eta Ipar Euskadiko Eskola guztiak bilduz Euskal herri Autonomi Elkartekoekin batera, babes legal berberaren pean». Beraz, publikotasun osoa aldarrikatzen da. Ikastolak Euskal Eskola Publiko gisa aitortuak izatea exigitzen da.

- *Estrategia:* Aurrekoak lortzeko honako urratsok proposatzen dira:

*a) Ikastetxe ezberdinen homogenizazioa:* «Eskola transferituekiko harremanak sendotu behar ditugu konfluentziara lehenbailehen iristeko eta pribatuarekin ere euskara eta euskal izaera bere programaketan sar ditzaten».

b) *Nafarroako ikastolen bidegarritasuna*: «Gobernu, diputazio eta ministeritzakin harremanetan jarri gure helburuak onar eta bultzatu ditzaten».

c) *Iparaldeko ikastolen finkapena*: «Euskararen beharra eta kokapena ikastetxe publikoetan ere bultzatu behar dugu». Horretarako hauteskundeetako gobernu berriari proiektu osoa aurkeztuz eta Euskal Kultura inguruan dauden taldeekin harremanetan jarritz.

## II. ESKOLA PUBLIKOAK

Eskola publikoaren prozesuaz aritzeko ere fase edo garai ezberdinak aipatu beharra dago:

### 1.- *Eskola Publikoaren lehen*:

Eskolen lehen fasea: Eskola antieuskaldun eta zapaltzailea; Francoren garaiko eskola; euskara galbidera eramateko biderik indartsuenetarikoa; euskarak lekurik ez zuena eta euskal kulturaren ordez, Espainiako batasunaren ingurukoa ezartzen zuena dugu.

Herri txikietatik handietara ikasleak biltzeko eskolen arteko kontzentrazioek ere euskarari eraso handia egin diote, asmatu zutenen buruan, agian, guztia horretarakoxe planifikatua zelarik. Gurasoen partaidetzak ez zuen lekurik garai honetako eskolan.

Ez zen egiten ekintza estraeskolarririk, ondorioz gestio guztia goitik beherakoa, zeharo antidemokratikoa zelarik. Ikasle euskaldunak erdalduntzea zuen elburu nagusizat, euskal kontzientzia, ihardunaren ihardunez itotzea.

### 2.- *Eskola publikoaren oraina*:

#### a) *Hizkuntz planteamendua*

Gari autonomikoan kokatzen da fase honen hasiera. «Hizkuntza ofizialen erabilera Irakaskuntza ez Unibertsitarioan» deituriko Dekretua atera zen.

Dekretu honen 2. artikulua, euskara ikastetxeetako maila guztietan derrigorrez irakatsi beharrekotzat hartzen du. 15. artikuluan, alor honetan ikasleek dituzten eskubideei buruz eta 17. artikuluan, gobernuak hori gauzatzeko hartuko dituen neurriei buruz aritzen da.

Azkenik, euskara irakaskuntza sisteman integratu nahirik, gaur egungo ereduak ezartzen dira. Informazio-orri batzu ere atera zituen Eusko Jaurlaritzak, asmo horren zergatia azaltzeko izan zituzten arrazoiak adieraziz eta eredu bakoitzak zer berezitasun eta helburu bete behar duen aditzera emanez:

Hizkuntzaren hausnarketaren ondorio gisa honakook azpimarra ditzakegu:

- Euskal Herriak euskara du berenezko hizkuntza.
- Euskal Herritar guztiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.
- Euskara eta gaztelaniaren irakaskuntza derrigorrezkoa da ikastetxe guztietan.
- Hizkuntza ofizial biak, euskara eta gaztelania, A, B, eta D, irakas ereduaren arabera erabiltzen dira irakaskuntzan.
- Haurrek era naturalean bigarren hizkuntza bat ikasteko gai dira.
- Haur elebiduna integratuago eta hobeto prestatua dago gaurregungo gizartean bizitzeko.

*b) Ereduen helburuei buruzko zenbait azalpen:*

Aipatu den bezela, Eskola publikoetan euskarari egiten zaio lekua hiru eredu ezberdinetan oinarrituta dago. Ikus dezagun bada zertan datzan eredu bakoitza azter ditzagun zeintzu diren lortu nahi dituen helburuak:

*A ereduak:* Irakaskuntza gaztelaniaz da nagusiki eta euskara ere irakasten da. Horrela Oinarrizko Heziketa Orokor osoan zehar,

*Helburuak:*

- Euskara ondo ulertzea.
- Eguneroko egoeretan mugitzeko oinarritzko hizkuntz ahalmena lortzea.
- Euskararekiko jarrera baikorra lortzea.
- Euskal inguruan txertakuntza posibilitatzea.

*B eredua:* Haur erdaldunentzat pentsatua bereziki. Bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, ikasteko hizkuntzak bezala erabiltzen dira. Jarraipena du OHO bukatu arte.

*Helburuak:*

- Ulermena lortzeaz gainera, euskaraz bizitzeko mintzamen maila nahikoa lortzea.
- Ikasketak euskaraz jarraitzeko gaitasun nahikoa lortzea.

*D eredua:* Haur euskaldunentzat pentsatua bereziki. Gastelania, ikasgaia da. Beste irakasgai guztiak euskaraz ematen dira.

*Helburuak:*

- Euskara aberastu eta komunikazio eta irakaskuntzarako hizkuntza nagusi bihurtzea.
- Talde euskalduna indartzea, giro erdaldunaren eragina konpentsatuz eta Euskal Herriko euskalduntzearen motore bihurtzea.
- Gaztelaniaren ezagupen egokia lortzea.

*c) Ereduen ezarpena:*

Eusko Jaurlaritzak, euskara eskoletan sartzeko orduan, esan bezala, A, B, eta D ereduen bidez egin zuen, eredu bakoitzari helburu eta leku propioak emanez.

Esan beharrik ez dago euskarak nolako giroa aurkitu zuen frankismoaren ondorioak bizi zituzten eskola haietan; oso baldintza txarrak zeuden ereduari eskatzen zaizkien helburuak lortzeko.

Urteak pasatu eta gero, esperientziak eta neurketek, euskararen planteamendu sakonik ez dagoenetan emaitzak ez direla bat ere onak adierazten digute.

Planteamendu sakonak irakaslego euskalduna eskatzen du zalantzarik gabe.

Ereduak dauden moduan, haur erdaldunentzat A eta B eta euskaldunentzat D, nahiko eztabaidagarri bilakatzen da, berezko desoreka konpondu beharrean areagotzeko bidea delako. Bestalde, Eskualde erdaldunetan ere, baldintza egokietan, hau da, ikas-tetxe osoaren onarpena eta eskuhartzea gertatzen denean, D ereduak emaitza onak izan dituztela frogatu izan da.

Ondorioz, D ereduak, dakienari gehiago irakastea al da? Ez dakienari eta kaleak gutxi laguntzen dionari eskolak ere gutxiago lagundu behar al dio A edo B eredura mugatuz?

D ereduak, gainera, ez da gure artean A edo B bezala esperimentalak, aspaldikoa baino (ikastolek erabilitako bidea), beraz zalantzarik izatekotan ere eredu esperimentatu gabeak eskaintzean (A, B) sor zitekeen zalantza!


Euskara behar bezala ikasteko murgildu egin behar da horretan eta hori egiten ez duten ereduak porrotetik hurbil ibiliko dira euskalduntzeari dagokionean. Murgiltze sistema bi bakarrik daude egon ere: A ereduak gaztelaniazko murgiltze sistema eta D ereduak euskarazko murgiltze sistema.

Norbaitek pentsa dezake eredu batzuek baino gehiago gustatzen zaizkidala eta ondo pentsatuko du, euskalduntzeko eredurik egokiena D ereduak bait da.

Jarraiko koadro honetan ageri diren emaitzek ere (ez dira nik asmatuak) esaten ari naizena frogatzen dute.



EIFEI-2-BATEZBESTEKOEN KONPARAKETA-EUSKARA



- 1-A ereduak ez du emaitzarik hobetu.
- 2-D ereduan, notak zertxobait igo dira azpiproba batzutan (diferentzia guztiak ez dira estatistikoki significantiboak).
- 3-B ereduak erdibideko posizioa du, baina Dren antza gehiago duela dirudi.

Eskola publikoaren oraina aztertzen ari garelarik, aitatu beharra dago lehendik zekarren frankismoko orbana gutxi ez bazen edo, 86ko uztailean euskararen kalterako atera zen Agindua. Bertan zilegitzat eta normaltzat hartzen da elebiduna ez den irakaslea, euskalduna ez dena B ereduko irakasle bezala, horrela B ereduen etorkizuna zalantzarria bazen, honekin dena txarragotu egin delarik.

Eskoletan euskarak oztupoak baino besterik ez ditu eta hauek gutxitzen joan beharrean areagotu egin dira azkenaldian.

Goian aipatu bezala ereduak esperientzia frogatu beharreko-tzat ezarri zituztenez, 86ko Uztailean Eusko Jaurlaritzak COBA-

RRUBIAS eta CUMMINS hizkuntzalari ospetsuak hartu zituen ereduak emaitza eta baldintzen arabera balora zitzaten.

Eskoletako errealtatea honela baloratu zuten:

«La represión franquista, la falta de profesores y las pocas oportunidades que tienen los niños para practicar el euskara fuera de los colegios».

Errealtate horren islada garbia dugu Eusko Jaurlaritzak urtebete geroago kaleratu zuen irakaslearen hizkuntz egoerari buruzko ikerlana. Hona hemen labur bildurik:

*E.G.A. titulua daukaten irakasleen kopurua: 1987*

		Irak. guztira	EGArekin guzt.	EGArekin %
ARABA	Publikoa	1.964	435	22,14
	Pribatua	1.084	70	6,45
	Ikastola	216	139	64,35
	Guztira	3.264	644	19,73
GIPUZKOA	Publikoa	4.154	1.415	34,06
	Pribatua	2.883	582	20,18
	Ikastola	1.980	1.370	69,19
	Guztira	9.017	3.367	37,34
BIZKAIA	Publikoa	7.950	1.758	22,11
	Pribatua	4.197	466	11,10
	Ikastola	1.075	726	67,53
	Guztira	13.222	2.950	22,31
E.K.A.	Publikoa	14.068	3.608	25,64
	Pribatua	8.164	1.118	13,69
	Ikastola	3.271	2.235	68,32
	Guztira	25.503	6.961	27,29

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Salla. 1987-XII-15.

*d) Ereduen balorazioa:*

Ereduen balorazioa bi jakintsu hauek honela egin zuten:

«El modelo A según el cual una de las asignaturas del plan de estudios es el euskara pero el resto de la enseñanza se imparte en castellano, no cumple, según diagnóstico los objetivos necesarios para lograr una sociedad bilingüe. O cambiamos de objetivo o cambiamos de modelo. Se ha demostrado que aquellos niños que desarrollan actividades bilingües están en una posición ventajosa respecto a los demás; los modelos B y D son los más factibles para implantar un bilingüismo auténtico?»

Ondorio gisa, A eredia B zein D eredu bihurtzeko ahaleginak egin beharrean, esan den bezala, B eredian irakasle erdaldunak sartu eta A bihurtzen ari dira.

*3.- Eskola Publikoaren geroa:*

Bere diseinuari eusten egon gabe aldaketa planteatu beharko luke konbergentzia lortze bidean, Euskal Eskola nazionalerantz, zeren, publiko hutsa orain ere bada, nahiz eta zenbait ikastetxee-tako jokaera pribatu moldekoak izan; euskara eta euskal kultura seriooki planteatu beharko ditu, ez konbergentzia lortzeko soilik, Espainian prestatuturiko erreformak ere errealitatean kokatu behar dela esaten duelako:

«El lenguaje es instrumento básico para la construcción del conocimiento, para el aprendizaje y para una plena integración social y cultural».

Guzti horri aurre egiteko, baina, COBARRUBIAS eta CUM-MINS-en balorazioan («falta de profesores») aipatzen den bezala oinarritzko arazorik larrietarikoa dugu aurrean, hots, irakasle euskaldunak jarri beharra. Azter dezagun, bada, arazo gorri hau ere:

*Irakaslegoaren prestakuntzarako programa:*

Programa honetan euskararekiko sentsibiltate falta argia nabaritzen da, hezkuntza sistemak zeregin jakin eta zehatzak bait ditu: gizartearen eskabideen hartzaile eta erantzule izan behar du zerbitzu publikoa den neurrian, hau da, gizarte horrek duen proiektuaren laguntzaile eta bultzatzaile.

Euskarazko ereduen eskaria geroago eta handiagoa da; elebidun izateko gogoia geroago eta nabariagoa. Administrazioak eskari hauen erantzunkizuna onartu eta bereganatu egin behar du.

Une honetan martxan jarri nahi den irakaslegoaren etengabe-ko prestakuntza programa, irakasle guztiak euskaldunak bailira planteatzen da eta zoritxarrez hori ez da geroagoko kuadroan ikusten denez gure errealitatea. Programa honetan hasierako txostenetik ezer aldatzen ez bada Eskola publikoaren etorkina geroago eta ilunagoa izan daiteke.

87/88ko Ikasturtean egin zen azkenengoz B ereduaren azterketa; B eredu guztiak ez dituztela emaitza berdinak eta aldagai metodologiko eta pedagogikoetan oinarrituz egin zen azterketa, hori gero hobekuntzarako bideak martxan jartzeko. Datuak oso adierazgarri gertatzen zaizkigu:

*Banaketa hizkuntz ereduen eta sare edukatiboen arabera (%):*

		X	A	B	D
Z. Publikoak	1982-83	25,58	62,52	7,68	3,85
	1987-88	0,15	74,55	15,44	9,84
Z. Pribatuak	1982-83	14,85	72,74	6,59	4,88
	1987-88	2,21	84,11	8,86	4,80
Ikastolak	1982-83	-	11,79	17,59	70,60
	1987-88	-	0,66	17,24	82,09

Iturria: Euskal Estadistika Institutua. EUSTAT.

*Banaketa hizkuntz ereduen eta probintzien arabera (%):*

		X	A	B	D
Araba	1982-83	29,16	60,43	8,22	1,70
	1987-88	1,50	81,10	14,00	3,40
Gipuzkoa	1982-83	4,11	60,81	11,13	23,24
	1987-88	0,70	49,30	17,50	32,50
Bizkaia	1982-83	25,29	60,07	6,79	7,44
	1987-88	0,80	76,10	10,00	13,10

Iturria: Euskal Estadistika Institutua. EUSTAT.

*Banaketa hizkuntz ereduen eta hezkuntz mailen arabera: 1987-88 (%):*

	A	B	D	X	B+D	A+X
Eskolaurrea	36,2	33,8	28,9	1,1	62,7	37,3
O.H.O.	65,5	14,3	19,5	0,7	33,8	66,2
B.B.B.-U.B.I.	86,1	0,9	13,0	-	13,9	86,1
L.H.	93,7	0,3	2,8	3,2	3,1	96,9
I.E.E.	71,9	3,8	24,3	-	28,1	71,9

Iturria: Euskal Estadistika Institutua. EUSTAT.

### *Zenbait ondorio:*

- Hasiera zikloan gaztelaniari ematen zaiola lehentasuna.
- Erdi zikloan ere, gaztelaniak daramala lehentasuna.

Euskararen aurkako fenomeno bi hauek lurralde guztietan antzekoak direla frogatzen da azterketa honetan.

Institutura pasatu den B ereduko lehen IRTENALDIAK nahiko oztopo izan duela euskaraz ikasketak egiteko.

Eskola Publikoaren etorkizunean euskarak toki egokiago izan dezan, hainbat irakasle, guraso eta beste zenbait erakunde ari dira eta hortik zerbait aterako dela uste dugu, euskarak errebinkatu beharrekoa izateari usten dionean, eskola inguruetako giroa asko aldatuko da eta oraingo ahaleginetatik fruitu azkarrak eman-go ditu seguruenik.

### *III.- IKASTETXE PRIBATUAK*

3.1.- Ikastetxe pribatuetako euskalduntze programei dago-kienez, datu falta handia dago, baina gehienetan euskara modu eskasean bideratzen da. Gipuzkoan B eta D ereduak ere sartzen ari dira beste lurraldeetan banaka batzuk salbuespen gisara.

Ikastetxe hauetan normalena A eredua eta beraz oso ordu gutxi, araudiak eskatzen duena baino asko ere ordu gutxiago dituela erabili ohi dute.

3.2.- Orainarte Administrazioetik izaten dute kontrola hutsaren hurrengoa da; zuzendariaren euskararekiko sensibilitatearen araberako tratamendua izan ohi du ikastetxeotan euskarak.

3.3.- Pribatuak leku garrantzitsua du hala ere; Hizkuntzaz kanpoko beste baldintza eta antolamentuari esker nonbait, ez euskara modu onean irakasten dutelako. Hainbeste haur euren eskuetatik pasatu eta elebidun bihurtzeko unea alperrik galtzearen erantzunkizuna goiz edo berandu norbaitek eskatu beharko die.

Euskararen erabipenaren legean, 17 artikuluan, Gobernuak elebitasun progresiborako neurriak hartuko dituela adierazten da, beraz, Gobernuaren betekizuna da ikastetxe hauetako euskara kontrolatzea.

Euskalzaleak direnek zergatik onartzen dituzte? Askotan galdetu diot neure buruari. Pribatura bialtzeak goragoko gizarte maila suposatzen duelako? Beste sareetan eskaintzen ez diren zerbitzuak dituztelako? Euskara, gero Euskaltegian ikasiko dutela pentsatzen dutelako...?

### ***Non legoke Ikastola - Eskolen arteko kate-bidea?***

#### *a) Euskararen irakaskuntza planari dagokionean:*

Euskara berreskuratu eta normaltzeko prozesuan, Hezkuntza Sistemak garrantzi berezia eman behar dio euskarari, euskara irakasteko eta erabilpena bultzatzeko. Honetan behintzat emankorrak ez diren ereduak baztertuz, haur elebidunak ateratzea izango litzateke plangintzaren arlo garrantzitsuenetarikoa bat.

#### *b) Gestio Demokratikoari dagokionean:*

Kontseilu eskolarrak eta Ikastoletako zuzendaritzek Iharduera demokratikoz buruturiko planetara joaz: Guraso, irakasle, ikasle eta herritar erakundeen partaidetza ere, agian, kontuan hartu beharko litzateke.

*Pilare Baraiazarra*